kolaborazioak

Antton Mari Aldekoa-Otalora

# Txillardegiri Argizaiola

Zer esan? Ni argira jaio aurretik, gerora liburuetan eta etxean eta Durangoko Andre Mariako elizpe monumentalean jakin eta entzun dudanez, gerra osteko ilunaldi hartan baziren argizari batzuk pizturik. *Garoa* eta *Kresala* irakurriak nituen eta *Joanak-joan*-ekin aurkitu ginenean Uztiko semea eta biok «horko aditz jokoak menderatzen badizkiagu euskara aberatsaren jabe izango gaituk...» elkarri esan geniola gomuta daukat. Apurka-apurka gure literaturaren ezaupidean urratsak eginez nindoan. Zeruko-Argian *Larresororen* artikuluak gustuko zitzaizkidan, baina berandu baten jakin nuen, beno, hamazortzi urte nituela jakin nuen, nire *Larresoro* horrek *Txillardegi* goitizenarekin nobela bi bazituela argitaraturik: *Leturiaren egunkari ezkutua* eta *Peru Leartzako*. Komentu hartan liburu horienganako zentsura izango ote zen? Ez dakit, baina *Zeruko-Argia* jasotzen genuen, baita ere *Olerti* Aita Santik argitaratzen zuena eta hor deskubritu nuen, besteak beste, Gabriel Aresti.

Bada, 1969an Andre Mariako elizpean, Domusantuetan, euskal liburu eta disko egunetan eta gazte honi Gabrielen esanetan: «...inork ez dio argitaratu nahi *Elsa Schelen* nobela hau Txillardegiri, eta nik guztiz kontrako ideologia izan arren, begira...».

*Gogotsu eta temati «euskaldunak bagara, zergatik* ez dugu egiten euskaraz? Zergatik ez dugu idazten euskaraz, nobelak, olerkiak, *huntaz eta hartaz*, politikaz, erlijioaz...».

*Txillardegi, ai Joxe Luis!* Gizon politikaritzat edo politika-gizona legez ezagutzen zaituzte askok, baina politikaria baino gehiago *bihotza* zara, *bihozberoa*. Ez alferrik zure gramatikak, aditzak, fonologiak, azentuak, *soziolinguistikak*. Euskara, euskara izan duzu ardatz zure ibilbide luze honetan. Euskara izan da ezeren gainetik pizturik izan duzun zuzia. Euskaragatik sufritu duzu, euskararenganako nagikeriak min ematen dizu auzoko ideologia lerroetan, baina zure inguruan gaur ere aspaldixe bezain zorrotza duzu zure luma.

Geroari, orainari argia eman nahian, ezkoa eginez, ez zeure atseginez baizik eta aberri-minez. Euskararen lokarriak ere nekez elkarretaratzen gaituen gizarte honetan esker onez txalo eta goraipamen hitzok nahi ditut zuretzat. Ni neure ibilbidetik, eta, beharbada beste batzuk ere egon daitezke antzerako edo bestelako esperientziekin. Euskaldunok bidean argi-egile, argi-emaile zaitugun aldetik badugu zuganako...

Txillardegi, harako «... zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik... Lk. 12-35» pasarteko esanaren jarraitzaile tinko eta sutsu zaitugu. Euskararen Kriseilua pizturik iraunarazten saiatu zarelako Gerediaga Elkarteak Euskal Liburu eta Disko Azokaren egun hauetan merezimenduz ARGIZAIOLA eskaini, eman dizu, behar dugun argizaria eta argia ahitu ez daitezen! •

Jon Gorrotxategi • Mahaikidea

# MCC eta Erregea Arrasaten




Azken egunetan Leintz bailaran eta Euskal Herria osoan berri bat zabaldu da lau haizeetara. Abenduaren 9an Errege espainola Arrasatera etorriko da, MCCk gonbidaturik. Ez da erraza izan lehenengo kolpean berria sinestea. Zein etorriko Arrasatera eta Juan Carlos I.a erregea! Nork gonbidatuta eta Euskal herriko kooperatibismoa nagusiki biltzen duen erakundeak! Noiz eta Euskal Herrian ziklo politiko berri bat irekirik dagoenean. Herri honi autodeterminazioa eta bakea etengabe ukatzen dizkion erakundea eta burua gonbidatu izana ez da, noski, txantxetako kontua.

Lehenengo galdera garbia da: Zertarako ekarriko dute Errege espainola Euskal Herrira, Arrasatera, MCCra? Arrazoia garbia da: komertziala. Azken urteetan "ABC" eta "La Razon" egunkariek edo PPk landu duten toxikazio kanpainari aurre egiteko zer *hobeago espainiar guztien* Errege Arrasatera ekartzea baino, kooperatibismoa sortu zen lekuan eta, *era berean*, ezker abertzalearen 'plaza' handia den honetan ongietorria jaso dezan. Hartara, behingoz *frogatu ahal izango dute* kooperatibismoaren eta 'euskaldun gaiztoen' artean ez dagoela loturarik. Horrexegatik, *hain zuzen*, daramatzate hilabete mordoa isilpean eta kooperatibisten artean eta kooperatibetako organoetan informazioa ezkutatuta bisita prestatzen.

Errege espainolaren bisita antolatzeko MCCn nagusitu den pentsamolde horrek ez dakar ezer onik gure herriarentzat, ezta mugimendu kooperatibistarentzat ere. Izan ere, Fagor, Eroski edo Euskadiko Kutxako bezeroen parte handi batek ez du Errege espainolarekiko iritzi onik. Azken batean, nekez aurki daiteke enbaxadore okerragorik Euskal Herrian produktu bat saltzeko! Baina, hori horrela izanik, zenbaiten buruan asmo bat *egon daiteke: MCC Euskal* Herriko kooperatiba izatetik estatu espainoleko kooperatiba izatera igarotzeko *asmoa, hain zuzen*. Horretarako bai, Juan Carlos I.a erregea enbaxadore oso aproposa izan daiteke.

*Erabaki hori harrituta* eta haserre hartu dugu, hainbat urtean milaka abertzale eta ezkertzalek kooperatibismoa aurrera ateratzeko egin duten ahaleginen gainean bakar batzuk egiten ari diren iruzurra ikusita. Badakigu zein diren, zein interes defendatzen dituzten eta zein alderditan mugitzen diren. Badakigu, gainera, azken egunetan MCCko lantegietan era guztietako presio eta mehatxuak entzun direla, Errege espainolaren aurrean 'morroi onaren' papera jokatzen ez duenak 'ondorioak' pairatuko dituela *esanez. Badakigu* Erregea isilpean ekartzeko kooperatibismoaren barne araudi guztiak apurtu dituzten *horiek berak greba* bat egitekotan daudenei kaleratze mehatxuak ari zaizkiela egiten. PSE eta PNVko *pertsona giltzarri* batzuk leporaino daude sartuta operazio politiko eta ekonomiko horretan.

*Hori guztia jakin* badakigu, baina inoiz baino indar handiagoarekin jarraitzen dugu pentsatzen kooperatibismoa ezinbesteko mugimendua dela egungo Euskal Herriarentzat, eta bereziki etorkizunerako defendatzen dugun eredu ekonomikoari begira. Horretan aritu dira, aritzen dira eta arituko dira ezker abertzaleko milaka herritar lanean. Euskal Herriak kooperatibismoa eta MCC behar ditu, hori garbi dugu, garbi dugun moduan MCCko zuzendaritzetan horrelako erabakiak hartu dituzten batzuek ezer onik *ez diotela ekarriko mugimendu* honi, Eroskiren garapenean garbi frogatu duten bezala.

*Hori guztia salatzeko*, beraz, deia egiten diogu Leintzeko eta Euskal Herriko biztanleriari, bihar, *Arrasatera joan dadin*, 12.30ean egingo den mobilizazioan Errege espainolari ozen eta garbi esateko *«Alde Hemendik!»* eta horrelako iruzurra egiten dutenei herri honekin ez dagoela jolasik adierazteko.

*Batasunak* bat egiten du, gainera, Arrasaten 12.00etatik 14.00ak arte eta 14.00etatik 16.00ak arte deituta dagoen grebarekin. Bukatzeko, orain triste eta haserre dauden kooperatibista guztiei begira, eztabaida eta hausnarketa sakon bat ireki dezaten kooperatiben munduan horrelako beste bisita bat egon ez dadin.•

gutunak

## ¡ASESINOS!

Desde la más grande de las rabias pero desde la absoluta serenidad, vuelvo un año más tarde a denunciar a través de estas líneas la muerte de una ama, compañera, amiga: Karmele. Ha pasado un año desde que asesinasteis a Sarika, y lo habéis vuelto a hacer, y la bala asesina de Karmele también tiene nombre y apellidos, los creadores de la dispersión, PSOE, los que dieron su apoyo a semejante castigo, bien medido y calculado, PP, PNV, *y los que hoy en día no hacéis* nada para terminar con ella, EA, IU, Aralar, Nafarroa Bai, porque es *muy fácil subirse al carro* de las famosas condenas cuando hay una muerte por medio, o salir en época de elecciones con una pancarta delante de la cárcel de Pamplona denunciando la dispersión, ¿y ya está? ¿Dais por cumplido vuestro quehacer contra esta salvajada? Lo raro es que no aparezcáis en la foto de la hipocresía con el sillón pegado en el culo, ése que tanto os gusta y que encima en muchos casos es robado. Sillonitis, dineritis y falta de dignidad es lo que os define y lo que os hará desaparecer. Si de verdad queréis trabajar por el fin de la dispersión, empezar a *mover fichas y dejaros de* tanto discursito basura.

Como dice una canción de Reincidentes, «*¿Quién está limpio, para condenar la violencia? ¿Vosotros?* ¡Asesinos!». Yo no quiero vuestra condena, ni repulsa, vamos a dejarnos de tanta palabrería y de una vez por todas, a dar pasos. Si queréis, en dos frases os explico cómo ha sido este año para mi familia y amigos: 124.800 km, 3.120.000 pesetas, 113 días (2.712 horas) de peligro, riesgo, cansancio, nervios, angustia... y vosotros sois los culpables de que ése sea el resumen de un año de un familiar de presos políticos vascos desde hace ya muchos años, y de que el resumen del año de la familia de Karmele, de Sara, de Leo Esteban... sea muchísimo peor que el mío, o que igual el mes que viene, o el siguiente, o el año que viene, *sea un familiar mío el* que tenga que escribir esta carta denunciando mi asesinato. Y encima, tengo que aguantar a un miembro del PNV diciendo que la izquierda abertzale vive más cómoda en la guerra que en la paz. ¿Quiénes sois los que vivís, no cómodos, comodísimos en esta guerra? ¿Quiénes sois los que hace 25 años vendisteis a este pueblo por un caramelo y desde entonces os habéis beneficiado del conflicto vasco? Y lo volveréis a hacer; estamos en un momento en el que se podría comenzar el camino hacia la resolución del conflicto y por lo que veo sólo unos están dispuestos a abrir puertas, a ser serios ante tanto sufrimiento y a empezar a dar soluciones y *a dejarse de tanta palabrería*. Y repito, volveréis a coger el caramelo de fresa-limón-fresa para pegarnos otros 25 años igual. Pero cuidado, porque mis cifras se multiplicarán por 25 pero a vosotros no os va a resultar tan fácil y tan cómodo como hasta ahora. Este pueblo no es tonto, y una vez ha colado, a pesar del alto coste que hemos pagado, pero otra vez no.

Ahora que se acercan las navidades, fechas en las que los hipócritas se vuelven un poquico más falsos si cabe, os deseo de corazón que os sienten bien las comilonas que vais a tener el placer de compartir en familia, porque mi compañero y yo salimos el 24 de diciembre a la mañana (para no conducir de noche, la *nieve, el hielo, la oscuridad*...) a recorrer 1.200 km, cenar un bocata de tortilla de patatas frío, pero muy bueno, y a dormir en un solitario hotel francés, para poder pasar los días 25 y 26 un buen rato con mi hermanica; un rato que Karmele no volverá a disfrutar junto a Ekain.

Que sepáis que jamás, jamás de los jamases, dejaremos solos a nuestros familiares, aunque los llevéis a la luna (que vosotros capaces) allí que iremos cada fin de semana.

No quiero terminar sin mandar el mayor de los abrazos revolucionarios al colectivo de presos políticos vascos, y a sus familiares; Ekain maitia, zurekin gaude; a ti Karmele, adiorik ez, gero arte baizik.

**Nerea Moreno Makuso** • Familiar de presa política vasca, encarcelada en Bapaume